

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

430

2/2015 EBAZPENA, urtarrilaren 12koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabaki bat argitaratzeko dena. Erabaki horren bidez, honako baimen hau ematen da: Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eraikitzeke 2011-2016 aldian egin beharreko zenbait lan Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea-ren esku uzteko gomendioa laugarren aldiz aldatzeko baimena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2014ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen: baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria dela-eta 2011-2016 aldian egin beharreko zenbait lan Euskal Trenbide Sarea-ren esku uzteko gomendioa laugarren aldiz aldatzeko. Bada, erabaki horren berri emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematea honako erabaki honen testua: Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eraikitzeke 2011-2016 aldian egin beharreko zenbait lan Euskal Trenbide Sarearen esku uzteko gomendioa laugarren aldiz aldatzeko baimena ematen da. Ebazpen honen eranskin gisa doa erabaki horren testua.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 12a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN URTARRILAREN 12KO 2/2015 EBAZPENARENA

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2014ko abenduaren 30ean, honako erabaki hau hartu zuen: bai-mena ematen da Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eraikitzeke 2011-2016 aldian egin beharreko zenbait lan Euskal Trenbide Sarearen esku uzteko gomendioa laugarren aldiz aldatzeko.

Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio autonomia erkidego bat baino gehiagoren lurraldeak hartzen dituzten interes orokorreko herri-lanak, trenbideak eta lurreko garraioen gaineko eskumen eskusiboa, hala xedatzen baitute Konstituzioaren 149.1 21 eta 149.1.24 artikuluek.

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du erkidegoaren intereseko obren eta Euskal Autonomia Erkidegoa soilik hartzen duten trenbide eta lurreko garraioen gainean, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoa sustatzeko, garatzeko eta plangintza egiteko eskumena eta lurraldearen antolamendu eta hirigintzaren gaineko eskumena ere, hala xedatzen baitu Autonomia Estatutuaren 10.25, 10.31, 10.32 eta 10.33 artikuluek.

2006ko apirilaren 24an, lankidetzaz-hitzarmen bat sinatu zuten Estatuko Administrazio Orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Trenbide Azpiegituren Administrazioak, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoan trenbide-sare berria (Euskal «Y»-a), Europako aurreikuspenen arabera martxan jartze aldera behar diren jarduketak egiteko. Egun berean, sinatzaile horiek berek lankidetzaz-hitzarmen bat sinatu zuten, trenbide-sare berria eraikitzeke hainbat jarduketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari gomendiotan emateko.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, interes publikoak lortzeko eraginkorragoa izango zelakoan, 2006ko ekainaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen, 2006ko apirilaren 24an sinatutako lankidetzaz-hitzarmenaren bidez Sustapen Ministerioak eta Trenbide Azpiegituren Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari gomendiotan emandako jarduketa horiek Euskal Trenbide Sarea ente publikoari ematea gomendiotan; zehazki, EAeko trenbide-sare berriaren (euskal «Y»-aren) Gipuzkoako adarrean 2006-2010 aldian eraikuntza-proiektuak idatzi, obrak zuzendu, laguntza teknikoa eman, eta desjabetzearen kudeaketarako bulegoa mantendu eta desjabetze-espeditenteen kudeaketa-administratiboan laguntzea. Kudeaketa-gomendio horren baitan sartutako lanak 2010eko abenduan amaitu ziren.

Hasierako aurreikuspenen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eraikitzeke lanak 2016an bukatu behar ziren.

Hortaz, 2006ko apirilaren 24an izenpetutako lankidetzaz-hitzarmenean ezarritakoa betetze aldera, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2011ko uztailaren 12ko bilkuran, Euskal Trenbide Sareari gomendiotan eman zion Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eraikitzeke 2011-2016 aldian egin beharreko zenbait lan, 141.810.000 euroan, guztira.

Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eraikitzeke lanetako zatiak gauzatu ahala urtero ordaindu beharreko zenbatekoak aurreikusi ziren 2011ko uztailaren 12an onartutako gomendioan. Aurreikuspen horiek, nolahi ere, aldatu ziren Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko abenduaren 27an, 2013ko abenduaren 30ean eta 2014ko uztailaren 29an hartutako erabakiei jarraituz, kontzeptu eta urteroko hauek oinarri hartuta:

2015eko urtarrilaren 29a, osteguna

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016	GUZTIRA
1.– Eraikuntza Proiektuak Idaztea	3.732.206,51	3.342.260,73	943.200,86	1.234.000,00	1.700.000,00	1.476.000,00	12.427.668,10
2.– Obren Zuzendaritza	13.611.684,74	13.954.248,97	11.171.788,50	6.616.000,00	9.922.000,00	15.500.000,00	70.775.722,21
3.– Proiektuak eta Obrak Zuzentzeko Laguntza	6.520.515,52	6.507.610,53	6.116.415,60	2.971.330,58	4.911.000,00	8.091.157,02	35.118.029,26
GUZTIRA, BEZIK GABE	23.864.406,78	23.804.120,23	18.231.404,96	10.821.330,58	16.533.000,00	25.067.157,02	118.321.419,57
BEZA (% 18 – 21)	4.295.593,22	4.355.879,77	3.828.595,04	2.272.479,42	3.471.930,00	5.264.102,98	23.488.580,43
GUZTIRA, BEZA BARNE	28.160.000	28.160.000	22.060.000	13.093.810	20.004.930	30.331.260	141.810.000

Jarduera horiei dagozkien zenbatekoak finkatzeko, oinarritzat hartu zen Gipuzkoako adarreko lanetarako datozen sei urteetarako (2011-2016 aldirako) aurreikusitako kostua, honela banatuta (zenbatekoak milioi eurotan daude emanda, BEZik gabe):

2011	2012	2013	2014	2015	2016	GUZTIRA
218,30	347,74	339,35	352,86	299,53	199,82	1.757,60

Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren lanetako tartek exekutatzeko erritmoa nolakoa den aintzat hartuta, laugarren aldiz aldatu beharra dago 2011ko uztailaren 12an onartutako gomendioan aurreikusitako urterokoak –lehendik ere aldatu zirenak 2013ko abenduaren 30ean eta 2014ko uztailaren 29an–. Izan ere, aurrekontuaren banaketa egokitu behar zaio lanen exekuzio-mailari, gomendioaren zenbateko osoa murriztu behar da, eta lanak bukatzeko data berria 2018ko ekitaldian ezarri, betiere Euskal Trenbide Sarea ente publikoak egindako oharrak oinarri hartuta.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren 13.1 g artikulua Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren esku uzten ditu trenbideen gaineko egitekoak.

Ondorioz, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren proposamenez, eta alde zuzenetik eztabaida egin ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

«Lehenengoa.– Aldaketak egitea Euskal Trenbide Sarearen esku utzitako gomendioaren 4.– puntuan (Erreferentziazko agiriak eta planteamendu orokorra) eta 6.– puntuan (Egindako lanak balioestea eta ordaintzea). 2011ko uztailaren 12an onartu zen gomendio hori, eta, ondoren bi aldiz aldatu, 2011ko abenduaren 27an eta 2014ko uztailaren 29an. Gomendioak 2011-2016 aldirako eraikuntza-proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko jarduketak

biltzen ditu (Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriaren, euskal «Y»-aren, Gipuzkoako adarreko espedienteetako jarduketak, alegia). Hain zuzen ere, Sustapen Ministerioak eta Trenbide Azpiegituren Administrazioak gomendiotan eman zizkioten jarduketa horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari, 2006ko martxoaren 24an izenpetutako lankidetzahitzarmenaren bidez.

Bigarrena.– Gomendioaren indarraldi berria 2011-2018 izango da.

Hirugarrena.– Gomendia aldatzeko baldintza zehatzak erabaki honen eranskinean daude jasota.

Laugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea kudeaketa-gomendioaren aldaketa».

Erabakiaren eranskina: laugarren aldiz aldatzea Euskal Trenbide Sarearen esku utzitako gomendia, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria dela-eta 2011-2016 aldiaren zenbait lan gauzatzeko.

4.– Erreferentziazko agiriak eta planteamendu orokorra.

Estatuko Administrazio Orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta ADIF Trenbide Azpiegituren Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan trenbide-sare berria eraikitzeko izenpetutako lankidetzahitzarmenarekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritza ari da euskal Y-aren plataformako eraikuntza-proiektuak idazten, Gipuzkoako adarrean, Bergarako 9+000 kp-tik hasita Irun eta Donostiako sarreraraino, eta proiektuak idatzi ez ezik, eraikitzen eta finantzatzen ere ari da, aurrerago dirua kupotik deskontatuta finantzatu ere.

Gipuzkoako adarreko obretarako aurreikusitako kostua datozen zortzi urteetarako (2011-2018), 1.977,61 milioi eurokoa da (BEZa barne):

2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA
218,30	347,74	339,35	242,03	350,53	181,62	152,49	145,55	1.977,61

Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa-gomendio horren ondorioz, beraz, ETSk egingo ditu EAEko trenbide-sare berriaren Gipuzkoako adarreko eraikuntza-proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko lanak (lankidetzahitzarmenaren ondorioz Euskal Autonomia Erkidego Administrazioari gomendiotan emandakoak, alegia).

6.– Egindako lanak balioestea eta ordaintzea.

Gomendiotan emandako lanen kostua, BEZa barne, 125.258.260 eurokoa da; eta zortzi urteko epea dago aurreikusita horiek burutzeko, erantsita datorren taulan jasotako kontzeptu eta urte-banaketaren arabera.

Enkargu honen ondorioz egiten diren lanak hileroko ordainduko dira, egindako lanak egiaztatuta. Horretarako, aldeztuak faktura aurkeztu beharko zaio Administrazioari.

2015eko urtarrilaren 29a, osteguna

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	GUZTIRA
1.- Eraikuntza Proiektuak Idaztea	3.732.206,51	3.342.260,73	943.200,86	909.291,50	1.140.000,00	3.160.000,00	200.000,00	200.000,00	13.626.959,60
2.- Obren Zuzendaritza	13.611.684,74	13.954.248,97	11.171.788,50	5.256.466,71	4.950.000,00	3.405.000,00	4.015.000,00	4.250.000,00	60.614.188,92
3.- Proiektuak eta Obrak Zuzentzeko Laguntza	6.520.515,52	6.507.610,53	6.116.415,60	2.470.605,38	2.410.000,00	2.395.000,00	2.296.000,00	1.685.000,00	30.401.147,03
GUZTIRA, BEZIK GABE	23.864.406,78	23.804.120,23	18.231.404,96	8.636.363,59	8.500.000,00	8.960.000,00	6.511.000,00	6.135.000,00	104.642.295,56
BEZA (% 18 - 21)	4.295.593,22	4.355.879,77	3.828.595,04	1.813.636,41	1.785.000,00	1.881.600,00	1.367.310,00	1.288.350,00	20.615.964,44
GUZTIRA, BEZA BARNE	28.160.000	28.160.000	22.060.000	10.450.000	10.285.000	10.841.600	7.878.310	7.423.350	125.258.260